


## TXAPELKETAREN ANTOLAKETA

- **Partiduak** astearte edota asteazkenetan jokatu dira goizez edo eguerdi arratsaldean, Eskoriatzako kiroldegi estalian.
- **Txapelketa 2 multzotan eta ligaxka formatuan** jokatu da, buelta bakarrera. Ligaxkan lehenengo bi postuetan gelditzen diren taldeek finalerdiak jokatu dituzte eta ondoren finala.
- **Puntuazioa:** Irabazitako partidak 3 puntu, berdindutakoak 1 eta galdutakoak 0 puntu balioko ditu.
- **Berdinketa kasuak:** Bi talde edo gehiagoren artean, sailkapenean puntu berdinketa egonez gero:
  1. Beraien artean jokatuak partiduaren emaitza hartuko da kontuan.
  2. Talde bakoitzak partidu bana irabaziko balitu (joan-etorriko kasuetan edo bi talde baino gehiagoko kasuetan), partidu horietan lortutako aldeko eta kontrako golen diferentziak erabakiko luke garailea.
  3. Txapelketa osoan aldeko eta kontrako gol diferentzia izango da erabakiko duena.
  4. Txapelketa osoan gol gutxien jaso dituen talde izango da garailea.
  5. Partidua errepikatu edo zozketa Kirol Zerbitzuan.
- **Taldearen osaera:** Talde bakoitza 5-12 jokalariz osatuta egon daiteke eta izen-ematea egin duten pertsonen soilik jokatu dezakete. Izen-emate orrian ez dagoen beste pertsona batek parte hartzen badu, talde horri partidua galdutzat emango zaio 3-0 emaitzarekin. **Partida bakoitzean asistentzia pasa beharko da, horretarako izango duzuen aktan (kapitainen ardura)**
- **Materiala:** Txapelketako baloiak eta akta kiroldegiko arduradunari (harreran dagoenari) eskatu behar zaizkio eta partidua amaitzean beraiei itzuli. Talde bien ardura izango da materiala eskatu, hartu eta itzultzea, baita akta ongi betetzea ere.
- **Puntualitatea:** Partidak garaiz hasiko dira eta gehienez 10 minutu itxarongo da. Denbora tarte horretan prest ez dagoen taldeak partida 3-0 emaitzarekin galduko du eta ez dela aurkeztu ulertuko da.
- **Emaitzak:** Partiduaren emaitza kiroldegiko harreran egongo den emaitza orrian edo aktan idatzi beharko du talde irabazleak edota emaitza bidali Kirol Zerbitzura.
- **Taldeen ardura** izango da astero hurrengo partidua noiz daukan kontsultatu eta kasuren batean, jokatea ezinezkoa baduzue, Kirol Zerbitzuan denboraz jakinaraztea (ostiralero emaitza gogoraziko zaizue hurrengo asteko partidua eta astelehena baino lehen abisatu ezin baduzue jokatu. Bestela, partidua galdutzat kontsideratuko litzateke)
- **Errespetua.** Ezinbestekoa da kiroldegiko arduraduna, instalazioa eta materiala behar bezala zaintzea. Adibidez, lurrera listua botatzea, garbi mantentzea, ...
- **Txapelketaren koordinazioa** Kirol Zerbitzuak eramango du. Harremanetan jartzeko, [kirolak.huhezi@mondragon.edu](mailto:kirolak.huhezi@mondragon.edu) helbidera idatzi edo 600035752 telefonora deitu (Oinatz).

## JOKOAREN ARAUTEGI OROKORRA

- Partidaren iraupena: 25 minutuko bi zati, 5'ko atsedenaekin.
- Taldea 4 jokalaria eta atezain batez osatuko da.
- Partidan zehar nahi diren aldaketa guztiak egin daitezke.
- Alboko sakea eta kornerra hankarekin aterako da.
- Gola edozein lekutatik sar daiteke. Ateko edo alboko sakea denean ordea, gola onartzeko, sartu aurretik norbaitek ukitu beharko du (zuzenean ez du balio).
- Atezainak falta egingo du:
  - Baloia duela, taldeko jokalaria bati pasatu eta honek berriz ere hankaz intentziaz itzultzen badio beste inork lehenago ukitu gabe (atezainak ezin du bi aldiz jarraian baloia ukitu).
  - Taldeko jokalaria batek hankaz intentziaz pasatzen badio eta baloia area barruan eskuekin hartzen badu.
  - Taldeko jokalaria batek alboko sake batetik baloia hankaz intentziaz pasatu eta area barruan eskuz hartzen badu.
  - Kasu guztietan falta ez-zuzena izango da eta falta egin den tokitik aterako da. Area barruan izan bada, faltatik gertuen dagoen arearen ertzetik aterako da.



- Atezainak areaz kanpo baloia ukitu dezake, beti ere aurreko puntuko arau hausteak egiten ez baditu.
- Atezainak baloia eskuz zelai erdia pasa dezake.

## SARIAK

- **Bi sari** irabaziko dira:
  1. Mondragon Unibertsitateko kirol txapelketan HUHEZI ordezkatzeari (otsailean goiz batez).
  2. Areto futboleko talde irabazlearentzat 25€/partaideko saria izango da. Saria ondorengo eratan jasotzeko aukera egongo da:
    - Forum Sport kirol dendarako erosketa balea.
    - Afari eder bat (25€/pertsonako prezioan sartu beharko da afaria).
- Saria ez da inoiz dirutan emango.
- Sariak pertsonalak eta trukaezinak dira beste pertsonekin.
- Txapelketako izenemate-orrian agertzen diren pertsonak bakarrik jaso ahal izango dute saria (12 pertsona gehienez).
- Talde kiroletan, partaide guztiek sari hautaketa berdina egin beharko dute.
- Saria ikasturtean bertan erabili beharko da eta ez da hurrengo ikasturte batera gordeko.